

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak oposaketa deitu du atezainaren 24 plaza hornitzeko

*Eskaerak urtarrilaren 16ra bitarte aurkez daitezke; probak 2019ko maiatzean hastea aurreikusten da*

Astelehena, 2018.eko abenduak 17

Nafarroako Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuak [oposaketa](#) deitu du atezain lanposturako 24 plaza hornitzeko, funtzionario-erregimenean, eta lehen aldiz D mailan, iraungitako E mailaren ordeztu, urriaren 24ko 1/2018 Foru Lege Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako langileen arloko neurrien ingurukoa, aplikatzearen ondorioz. Neurri horiek urriaren 4an adostu zituen Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilaria den Maria Jose Beaumontek LAB, CCOO eta UGT sindikatuekin.

Deialdia Funtzio Publikoko zuzendari orokorrak azaroaren 20an emandako 2782/2018 Ebazpenaren bidez onartu da, eta gaur argitaratu dute Nafarroako Aldizkari Ofizialean ([NAO, 241 zk., 2018ko abenduaren 17koa](#)). 2017ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokio, abenduaren 20ko 116/2017 Foru Dekretu bidez onartua.

Hautapen-prozesuan parte hartu nahi dutenek eskaera telematikoki aurkeztu beharko dute Nafarroako Gobernuaren [Zerbitzuen eta Izapideen Katalogoan dagokion fitxaren](#) bitartez, bihurtik hasi (azaroak 18) eta 2019ko urtarrilaren 16ra bitarte.

Plaza hutsak honela banatuko dira: hamar plaza txanda librea, hamaika plaza sustapen-txandan eta hiru plaza erreserba-txandan, ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat. Sustapen-txandako plazak hutsik geratzen badira hautapen-probetan gutxienez eskatutako puntuazioa ez lortzeagatik, txanda librekoetara batuko dira.

### Oposaketaren garapena

Oposaketan bi froga egingo dira: lehenengoan, idatziz erantzun beharko da test erako 80 galderako galdetegia, gai orokorreari buruzkoa (estatuko eta foru komunitateko legedia) eta gai espezifikokoaren ingurukoa (lanpostuaren berezko lanak: mekanika, iturgintza, berogailua, pintura, e.a.).

Galdetegi hori gainditzeko dutenek bigarren froga egin beharko dute; alegia, hitzezko gaitasuna, zenbakizkoa, ortografia eta pertzepziozko trebetasunari buruzko 80 galderako galdetegia.